Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Arroxa Pikabea Artola

Qiartzun, Gipuzkoa
(1916-2009)



Aurkibidea

Biografia



Arroxaren jakinduria guztia jaso eta hemen jartzeko motz gelditzen zaigu txoko hau. Izan ere, berak esaten zuen moduan, "bizimodu klase asko izandakoa" zen. Oso gazterik alargundu zen eta 11 seme-alaba hazi behar izan zituen berak bakarrik. Hori gutxi balitz, kanpoko askori ere lagundu zion. Xabier Leteren hitzak ongi aplikatu zituen Arroxak: "ez dadukanak ongi ohi daki edukitzea zein den ona". Arroxak bazekien zer zen emakumea izatea, eta gai horretan oraindik atzean dagoen gizartearen aldean, bera oso aurreratua zebilen.

Zintak

OIA-052

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Data**: 2007-10-03
- **Iraupena**: 58 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-053

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Data**: 2007-10-03
- **Iraupena**: 53 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

Pasarteak

1. Portuberritik Okillegira

- **Erref**: OIA-052/002
- **Iraupena**: 0:03:38. **Hasi**: 00:02:05. **Bukatu**: 00:05:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Arroxa Ergoiengo Portuberri baserrian jaio zen eta Karrikako Okillegira ezkondu zen. Gizona argentinarra zuen, baina gurasoak Ituren jaioterrira itzuli ziren,

eta handik hasi ziren anaia eta biak Vasco-Navarra argindar enpresarentzat lanean. Portuberrin apopilo zegoela ezagutu zuen Arroxak gero bere gizona izango zena.

Transkripzioa

- Gue Dolorex bizittu zen han, Dolorex oaiñ Altzibarren bizi da, nik ez dait zenbat denbo izango den torriyikan, ni handik ezkondu nitzan Okillira, bai, treintaynueven ezkondu nitzan, el año treinta y nueve, el día de Santa Cecicilia.

- Hogeita hiru urtekin?

- Bai.

- El día de Santa Cecilia ezkondu nitzan.

- Eta nola izautu zenun zea, mutilla.

- Ne gizona? Ne gizona argentinua zen, e... miño txikiyak zil... mueno, hamahiru-hamalau urtekin 'o torri zin familiya honea eta geo gerrako dembun nola jende asko detenittu zuten Makintxea, Portuberri ondoko zentrala hartan...ko gizona eraman zuten, bueno hortako, ne gizona 'ta hoik Ittuinen bizittu zin, Ittuinea torri zin Ameriketatik. Eta geo, klaro lemizi, karri zuten dirukin bi itxe eosi, esa es una historia, eta bizitzen jarri zin Ittuinen, osasunik ez zulako etorri zin Ameriketatik ne suegruk eta banku batin jarri zuten dirua, itxia eosi 'ta gañekua, eta banku horrei... beste bankuk san 'men ziyon eun batin: "Dirua hoi hortik atetzia hobe 'zu zertik banku horrek soiñu txarrak ttu" 'ta gue... ne suegrak kontestatu 'men ziyon: "Ze nahi 'zu zurian jartzia 'o zer?". Efektibamente: bankuk kiebra jo eta sosik gabe gellittu zin. Eta geo ordun, béak eosi zuten tokiyan jarri zuten taberna 'ta zezena izaten zen ordun, oaiñ artifizialetik denak, eta han hasi zin bizitzen. Eta, e... hamasei urtekin 'ta hamabostekin bi zarranak, ne gizona 'ta bestia... Dominikan gizona, zea genun... Jon, lanea jon zin Frantziko ez dakit noa 're... 'Ta ordun ne gizonak miñ hartu zun han, arbol batek azpiyan hartuta, urtebete pasa 'men zun Pamplonako klinika batian. Eta geo, taberna nola baizen de Elgorriaga, Elgorriagan denbo batin Baños de... Elgorriagan zin, oaiñ ez da, oaiñik 'e zoluak 'o han zozten. 'Ta horrea tortzen 'men zin Donostiko jende asko bañoa eta Vasco-Navarrako nausiyak 'e horrea joten 'men zin. 'Ta geo nola baizuten taberna 'ta ne suegrak oso ongi zekiyen kozinan, eta hara hasi zin joten euna pasatzea 'ta taberna horta, 'ta han konfiantza in zuten eta ne gizona 'ta be... bi anaiak sartu zittuzten Vasco-Navarrin. 'Ta Ittuitikan oiñe... tortzen ttunen bizikletan haik eunero Pasaira Luzuriagana lanea, lemizi. Lemizi Luzuriaganin hasi zin 'ta geo Vasco-Navarrea pasa. Ittuindikan bizikletan eunero!

- Zenbat dembun?

- Nik ez dakit... bi ordu bai gutxinin... geyo!

- Miño urtetan 'ta hola 'o?

- Bai bastante urte, geo... zenbat urte zango zin? Sartu zenin hogeita hiru urte 'o, honea torri zenin zeara Makin... 'ta geo Makintxeko gizona hoi nola eaman baizuten detenittuta kartzela, harren tokiyan torri zen ne gizona. 'Ta

geo bakizu, apopilo tokiyak eta ber izaten zin... ne itxea jon zen apopilo 'ta handikan in genun izauera.

2. Apopiloak

- **Erref**: OIA-052/003
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:05:43. **Bukatu**: 00:08:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Portuberrin apopilo asko ziren, baita bertan zahartu eta hil zirenak ere. Apopiloak etxekoak bezalakoak ziren. Lehen, etxean zaintzen zen zaharra. Hika.

Transkripzioa
- 'Ta in genun izauera 'ta handikan ezkondu giñan, bai.

- Bai, ze Portuberrin apopilo...

- Asko.

- Asko, ez?

- Lau 're hillak genittun, lengun saten aittu nitzan zeñei: "gu etxiin, denbo batin zarrik ez dela itxiin, gue itxian apopiluk 'e lau hil ttuken, lau!". Gue etxea jon apopilo 'ta han bertan zahartu 'ta miña bat harrapatu 'ta bertan hil, bai. Zuk izautuko zenun Mieltzo, Mieltzo Tromoiya?

- Bai.

- Harren osaba bat 'e ne... han hil yunen. Juergan jon igandikin 'ta kanpoa atera jana 'ta kazkarra 'ta San Antonak eta hoztu da 'ta sotoa sartuta, han lau 'o bost sotun, eta hoi ikaragarrizko hotzikarakin, 'ta goira eaman 'ta... minan lana itten zun 'ta minako gaitza zakan 'ta pulmoniya harrapatu 'ta hantxe hil zen, gue etxian hil zen. Mutilzarra, mutilzarra? Bai, berrogei bat urte 'o. Majua zen, miño juergista. Ixtoia? Ordun beztittu in ber izaten zen hiltzeko, no tenía ropa 'ta be anai bat, meno oaiñ ez da iñor bizi, ikatza itten ai zen tokira jon ne atta 'ta handikan 'ta haren trajikin jantzi eta enterratu zen. Holako ixtoiak dia, bai.

- 'Ta apopiluk ze itten zin: ya etxekuk bezela?

- Itxekuk bezela. Hoimeste urtian... Bestia 're Selpuukua zen, Selpuuko semia 'ta mutil zarra yunen 'ta itxian ez zela ongi 'ta hua 're gue etxea torri 'ta (bire) geitza zuten. Hoi denak... 'ta beste bat 'e... geo hasertuta itxea torri, Altxi, zuk ez zenun izautu, eta hura 're gue etxian sortu zionen, meno, neskaaxta jonta eroi zela ez dakit non 'ta herida in ez kasoik in 'ta geo handikan pulmoita 'ta... behintzat, de noche a mañana, han hiltzen hua 're.

Eta beste bada attona, ne attan atta, mutilzar bat izaki anaia 'ta gaizki jarri zen 'ta iñoa 're joteko tokiyik ez 'ta... eta anaiak jaso 'ta hamar urte pasa ziñen harek oyin, hamar urte. Hura 're han hil zen. Lau mutilzar, san niyon "Mutil zarren tokiya". Aleiya, ate zen... oain nola joten din asko... famili asko da eamaten ttuztenak 'ta joten dinak eta ospitalea, 'ta ordun itxian kuidatzen zela xarra, 'ta hola ate genun ixtoia, hemen.

3. Pobre baina zoriontsu

- **Erref**: OIA-052/004
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:08:40. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Lehen, diru gutxi erabiltzen zen. Baserritarrek diarioa edo kartilla izaten zuten. Dendetatik hartzen zutena idatzi egiten zuten, eta, gero, abere bat salduta ateratako diruarekin kitatzen zuten zorra. Lehen lan asko egiten zen, baina pozik bizi ziren. Portuberri baserria. Hika.

Transkripzioa
- ...ate genun, ixtoia hemen. Hola atetzen zin txarrak itxian.

- Len jaio 'ta hil: itxian.

- Itxian. Oain gañeko... oaiñ denak zarrak 'e denak diaiyo pixkat badugu, ordun iñork 'e ez zun e! diaiyoikan. Gabe jaso ber izaten zen gurasuai, itxea ezkontzen zen bat 'ta itxian itten zenakin bizi, 'ta hola. Sos askoik gabe. Kartilla beti 'ta dirua... 'o zerriya kumen batzuk saltzen zinin 'ta zokor bat saltzen zinin, 'ta zorrak patu. Hola. Hola bizitzen zin. Miño, nik saten dut beti, ordun parra in 'ta bizi... Oaiñ ez din inorrek parrik itten! Oaingo gaztiak ez du... beti... Nahikua izaki 'ta beti haserre do!

- Bai.

- Hoi da difentziya.

- 'Ta lana 're asko itten zenuten miño beti berriketan aitzeko 'ta denbua hartzen zenuten, ez?

- Ui, lana: Goizin jaiki 'ta lanea, geo gosaltzea, geo bazkaldu arte lanin zelayin 'o artajorran 'o ze denbo zen... udazkenin iatzia, iatzia ebatten ibitiyakin 'ta beno, dena hola. Miño, bakotxak ben tenorin ben lanak eta... neua tortzin artaxuitzen iji 'ta aja juntatzen bagiñan, norbatte joten bazen, gue itxian bakizu taberna 'ta beti mutil gaztia 'o norbaitt izaten zen... 'ta iji 'ta aja arto-txuitzen 'ta... Holako bizimodua zen, diruik ez zen miño konformidadia. Oaiñ ez do, oaiñ... Oso diferentia. San niyon honea torri zenai: "Mundua? Munduak buelta bat eman du! Bakarra ez: bi! Bi gañea, eman 'ttu". Oaiñ errespetua galdu da 'ta dena galdu da. Oaiñ iño... errespetua nik ez dakit nola san 'e: gauza askotan errespetoik ez do. 'Ta

honek 'e battin kulpak: zemat gauza azaltzen dia umin aurrin, ikusi ber ez dinak, denak ikusten 'ttuzte. Nik, honen muttiko ttikiyak, oaiñ hogeita hamaika urte 'ttu: (beok) hor ai zin zerbatte peli... zea 'ta: "Gorka, hoi ez da zuk kusteko mokua" 'ta "Amona, hoik kalin ikusten dia 'ta!" kontestaziyua!

- Klaro, harek ya ikusiyak!

- Bai. 'Ta hola, la vida.

- Bai, eta Portuberri gañekun zer zen, baserri haundiya zen?

- Bai. Baserri haundiya zen gue etxia bai. Geo pasa zen karretera... Trabajadorik in zuten 'ta zalaiyak 'ta erdittuta utzi zittuzten. Erdittuta geldittu zin. 'Ta miño... familiya 're gutxiyo 'ta lana 're gutxiyo aski 'ta...

4. Gerraren ondorenak

- **Erref**: OIA-052/006
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:11:20. **Bukatu**: 00:13:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Urteko errenta 66 duro kostatzen zitzaien maizterrei. Garai hartan ez zen batere sosik ikusten eta baserritik bakarrik ateratzeko asko zen. Portuberrin, anaiak meategietan egiten zuen lan, eta hark ekartzen zuen diru pizarra, baina gerran hil zen. Hika.

Transkripzioa
- Miño gu errentan bizittu giñan. 'Ta hirurogeita sei duro ziñen errenta miño hua patzeko 're urtian itten genittun 'o txokor bat 'o zerrikume batzuk 'o... Jornalik ez den tokiyan baserritik atera ber baldin bada, oso diferentia da. 'Ta ordun neskame 'ta jotia, gue zarrai... ni Ergoinen eon nitzan... Bialden, sardo saltzen. Zea, jon zelako hango gizona sardo... 'ta gue attak: "Ez al zu neska bat mango sardua saltzeko?" 'Ta ni torri nitzan. Hua izan yunen ne ate... 'ta ne anaia, gerran hil zenak, gerran hil zitzaiñ... lenbizikua Oiartzunen, 'ta hura Arditturrin hasi 'ta beti xox bat eta beti difentziya izaten zen familiyan.

- Bai, beti hua geyo. 'Ta gerran ze in zuten eaman in zuten 'o?

- Bai, soldao. Soldao zon, 'ta permisukin torriya itxian eta etorri zen... San Juanetan, 'ta hurrengo eunin San Juan itturrira jon giñuzenen behintzat, hoi dakat gouan. 'Ta geo hilabeteko permisukin torri zen 'ta geo altxatu zen gerra, eta guria ez zen presentatu miño beste bost laun 'o bazittun 'ta haik presentatu zin 'ta hairi galdetu 'ta geo gue etxea... detenittu in zuten: jon zin reketik 'ta geo eaman zuten Panplona 'ta han konpañiya prepatu 'ta Olaitzala, Olaitzola torri zin, hor jarri zuten kozina 'ta hor eondu zin denbo bastantin. 'Ta hortik jon 'ta lenbiziko atakia Irunen; lenbiziko atakin hil zen. Bai, Oiartzunen lenbizikua. Gue amai, bizitza erdittu zionen. Aizu, hogeita hiru urteko mutilla hiltzia ordun. Oaiñ azidentikin 'ta hiltzen dia miño,

ordun.

- Hola hiltzia...

- Hola hiltzia...

- Zer zen zarrena hua?

- Hura zen bigarrena. 'Ta geo Inaziok...

5. Gerrara eramanak

- **Erref**: OIA-052/007
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:13:30. **Bukatu**: 00:15:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Inaziok, bere anaiak, sei urte pasatu zituen gerran; azkeneko urtea, Bartzelonan. Zorriak janak itzultzen ziren etxera. Hika.

Transkripzioa
- Hura zen; biarrena. 'Ta geo Inaziok: horrek sei urte pasa zittun gerran.

- Bai, san izandu digu gui.

- Geo hoi... horren eaman ber zuten... hemezortzi urte komplittu gabe eaman zitenen gerra gue Inazio. Sekulan Oiartzundik ate gabia, pusill bat ikusi gabia 'ta... hala eaman zuten. Sei urte pasa zittun. 'Ta Manuelek suertia izandu zun; ya gerra bukatu zen 'ta Lesakan in ziñen soldauxka. Lesakan bazen konpañiya, bakizu gerra ondorin nonahi jartzen zittinen 'ta. Bai. Ge Inaziok azkeneko urtia pasa zun Bartzelonan soldado, Bartzelonatik zeatu zen... Zorri pilla 'rra karri ziñen. Itxian sartu zenin, ne atta difuntua uztarriyan jartzen behiyak 'o ez dakit ze ai zen 'ta: "Atta, dena zorriz betia torri naz 'ta...", "E'yaiyela ordun gotti jon" 'ta gue amak arropa guziyak hartu 'ta balde batin sartu ziñen suan jarri 'ta denak han bukatu zin zorriyak.

- Jo! Nola torko zin haik!

- Bai. Zorriyak... nik kusi nun mutil bat, (berez 'e zea zikiñ xamarrak zittuzten) 'ta ne gizon difuntuak, orduko gerra, klaro, gerra bukatu... Koxme zun izena 'ta, e... san zin: "Ekarri nazu alkandoa 'at" 'ta "Ze in ber 'zu", "Koxme, nik uste 'ut, zorriyak dena betia dola 'ta putzun sartu ber dut, putzun". Harren bizkar-hezurrako hezurra hoi dena, dena zorriyak jana ziñen, llagatan jarriya. 'Ta hala bizi zen hura gizajua, amaik ez zun ta... atta... Eta ne gizon difuntuk hartu zepillua dena garbittu, garbiya jantzi 'ta bueno... holako ixtoiak!

- 'Ta klaro, gerra zu ongi gotuko za. Hogei urte...?

- Hogei urte, gerran. Ni dena gotzen naz gerra.

6. Tiroak, bonbak, lapurretak... gerra

- **Erref**: OIA-052/008
- **Iraupena**: 0:04:01. **Hasi**: 00:15:37. **Bukatu**: 00:19:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Gerraz ongi gogoratzen da. Ez zuen eguzkirik egin urte hartan. Etxetik atera orduko, tiroak non-nahitik. Tropak mezara joan ziren eta San Markostik bonbardaketa hasi zen. Santuseneko gurdi-bidetik aita eta biak zihoazela, bonba ondora iritsi zen. Langileen Batailoia errepidea egiten. Gauza beltza da gerra. Hika.

Transkripzioa
- Hogei urte, gerran. Ni dena gotzen naz gerra. Gerra, lengo esayera da: gerraik hobena miño pake txarrena hobia dela, 'ta bai. Ordun ez duzu pozik 'ta deuse, 'ta beti usai bat, zea usai... polbora usaiya 'o... gaiñea gerrako lenbiziko urtian euzkiyik e'tziñen sateko... ez dakit jaingokun zeaz... euzki gabe bizittu giñan gerra hasitako urti hartan. In zun urte bat... 'Ta aieka guzitatik soldadua 'ta guardiya 'ta beno. Ogiya billa torko bagiñan 'e eozin tontorretan bazozten guardiyak jarriyak: pa 'ta... ti 'ta... Nei ez zitt tokatu beñe jotzia miño... ordun kartilla bat maten zuten ogiyan billa joteko, laun batek 'o bik 'o... 'ta attak eta nik jotia bakarra genun libre ogiyan billa. Ne ama hamakiña bier atzetikan beira eondua: ni itxetik atera ordu goiko Galtzatako gaiñatik hasiko ttunen zipi 'ta zapa. 'Ta beñe ez zitzaidan suertu nei jotzia. 'Ta nik granada bat... San Inaziyo euna, eliza jon 'ta handik atera 'ta tropak sartu zin elizan meza entzuten, oaiñ miño fede... ez dakit nola den hori. Eta ikusi ziten nomatte zeatik, San Markotikan, San Markon frente geitza izandu zen, eta hasten da bonbardeua 'ta Oiartzungo eliza bai, orro errak! Ez dun nolanahiko... in zizkaten harri batzuk bota. 'Ta handik atera 'ta, atera 'ta, ate bittartin auantatu geniñen, tropak ate zin bitarte, 'ta aún y todo baguzen, oaiñ dena etxez betia zion hoi, Santosene aldeko tarti hartan arto-zelai izugarriya zen. Eta goiatik biria, eta goixiotik biria, geoztik in zuten Ergoinea biria, zea karretera, bestela zen gurdi-bidia miño zabalxio miño ya...

- Bai, Gaztañea atetzen zena.

- Atta ta biyek zakua bizkarrin genula 'ta hor ikusten dut zu gauz beltz bat xi-xi-xi "Atta atta, non..." 'ta guk bai korri errak. Atzetik bai harri pilla 'rra hartu geniñen. Bai, harrek in zun zoluakin, beno... itxe bat sartuko zen. 'Ta ez zen lertu... geo hamakiña bat abere zar sartu zitenen zolu hartan, geo aberia, ordun ez zen kotxeik eta aberikin zen dena 'ta gosia 'ta llagatan 'ta... abere asko hiltzen zen. Denak zolo hartan. Pilla 'rrak battun han sartuak. Nik behin ikusi dut, bonba nola tortzen den: beltz-beltza birian... bueno! Penagarriya, penagarriya. 'Ta ordun ezin zenun hitzeiñ 'e gauza asko 'ta. Bakizu (non aitzik 'e ez zen): dena militarra, dena reketia, dena... 'Ta lapurretan 'ta beno, gosia zuten, arto zelaitan 'e... artua guk ez dugu jan miño... zuitzen zitenen 'ta erre 'ta jarri 'ta hura jaten zuten Trabajadoriak. Trabajadoria... beno, golpe bat 'e etziñen harrek gogoz man karretera hortan. Ne attak saten zun: "Autxiliko tunelian gogoz emantako

golpe bat 'e ez dun". Hor pasatu zittuzten hiru urte 'o, hortikan karretera Ergoinen hasi 'ta Lesaka itten. Oso gauza beltza da gerra, beltza-beltza, beltza, beltza... Nik askotan... bai, hoi iruitzen yote askoi, oaingo gaztia ez 'iten ikusi 'ta, kontua, pero... gerrik, 'ta lengo esayera da: "Gerraik txarrena miño pakeik txarrena hobia da".

- Eske gu ez ga ezta imajinatu...

7. Hildakoak non-nahi

- **Erref**: OIA-052/009
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:19:38. **Bukatu**: 00:22:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:
Ezin da irudikatu zer den gerra. Hildakoak non-nahi. Fusilamendua ere entzun zuen, Kastronean lotan zen aldi batean.

Transkripzioa
- Gerra... 'ta lengo esayera da: "Gerraik txarrena miño pake txarrena hobia da".

- Eske gu ez ga ezta imajinatu 're itten.

- Ez, ez, ez...

- Nahiz 'ta zuek kontatu 'ta iñalak iñ... haiñ-haiñ gorra, ez?

- Bai, bai. Ez da imajinatzen zer den gerra. Aieka guzi... nonahi herittua zu, ni beti akortzen na, goitik betti ogiyan billa helduki 'ta zea, Paotxikitako buelta itten du 'ta zokua hartan soldado bat hantxe hilla, miño hozkiya... jarri itten da noski. 'Ta Goñi, famoso Goñi; han, guardian han zebillen. Zea, honea heldu zin tropai nola zubiya bota baiziyoten pasua gabe geldittu zen hasta septiembre, 18 de juliotik ez zon pasoikan, dena mendiz ibiltzen zen eta Goñi horrek san zin: "Noa zuz neskatxa?" 'ta humildemente "Ogi billa" 'ta "Sartu kotxin". Lenotik ezauna, konfintza ez, miño ezauna, hemen Arrauan bizittua baizen, eta sartu 'ta berak eaman zu, nik harrentzat deus satekoik ez dut. Atzea, hara, soldadu hilla zon tokiya harta ekarri zianen, porke han bailtzaten soldadu hil zina haik eramateko 'ta prepatzen, behiyak 'e, behi paria jarri 'ta gurdiyan eamaten zittuzten 'ta, hoik begitik ezin kendu zit soldadu haik kuneta zoluan. Aman semik izango zin zein bazin 'e, 'ta hola. Nik apusilamendua 're sumatu nun Oiartzungo kamposantun, ikusi ez nun iñ, miño sumatu? Kalin geldittu lotan, Kastronin ni lanea asko joten nitzan, eta gau batin tiroteuak 'ta hango etxeko andre zarra, oaindikan 'e neska zarra bizi 'un. Kuartoa jon zin: "Ez ikaatu, afusillamentua da". Ui ama! Hura tarrapatuta 'ta geo tiro de gracia dela 'o pa-pa, ni... 'Ta hurrengo eunin josten ibiltzen nitzan ni 'ta neskame zon baten nobiyua 're han hil zuten, hemengua zen mutilla 'ta neska kampokua, neskame zona miño euskalduna. 'Ta hura nearrez nola Ollokinea jon zen, 'ta arratsa hartan hil zuten mutilla hura 're. Kinkirrinkiñenekua, mutil polit askiya bai! Bai, hil zuten...

- Aitzia bakat bai: Kinkirrinkiñenekua.

- 'Ta horrengatikan ba hoi. Ixtoriak dia... ahaztutzen ez dinak...

8. Gerra aurreko giroa

- **Erref**: OIA-052/011
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:24:35. **Bukatu**: 00:26:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
Gerra aurretik ere bazen miseria, baina goserik ez. Hala ere, giro nahasia zegoen; grebak egiten ziren. Tropak sartu zirenean, Portuberriko apopiloak bertan zeuden; meategietako langileak ziren eta greban zeuden. Gazte asko zegoen lanik gabe, baina ez zen pentsatzen gerra etorriko zenik. Nafarroako sarraskia.

Transkripzioa
- Len zena 'ta geo ez zena 'o...

- Nik ez dakit... leno gerra aurretik 'e mixeia zen zu, mixeia galanta. Hau zea da Gorka seuraski, semia... Gerra aurrin goseik ez zen miño pakeik 'e, ordun 'e huelga 'ta... nasiya jendia. Arditturri lanin ai zen ordun 'ta ni tropak torri zinin Portuberri dena jendez betia zionen huelgan zolako. 'Ta ordun tropak zer zin 'ta ez zen... "Bai, zea Endarlasako zubiya bota 'ute tropak" 'ta... Geo handik bi eunea azaldu zin hemen. Geo Eskasea, aitzia izango zu? Eskase tropak estrenatu zuten lo itteko arratsin, geo zabaldu zin denin 'ta...

- 'Ta gerra hasi aurretikan arguyua 'ro aitzen al zen zerbatt heldu zela 'o okerrea zijula zerbatte 'o?

- Bueno, sinixtu 're... jendia bakizu, lanik gabia gaztia dena itxian, iñork 'e ez zun lanik, miño gerra torko zelik iñork 'e ez zun pentsatzen. Ez zekitenen gerra 're zer zen 'ta. (Atzokui san niñen) 'ta Naparrun hasi zela, atzoko kontuk bai, handik etorri (da) General Mola, naparra zen 'ta harrek ekarri zizun tropak, lenbizikuk. Handik hasi zen Pamplonatik, han 'e herri ttiki guziyak, etorri nahi ez zuna apusillatu 'ta, han likidaziyua izugarriya inta torri zen. Torri 'men zen. Nik hangua lehengusu batekin, neriakin, ezkondua bada 'ta harrek hala saten zun: zazpi senirekin geldittu zela hain ama 'ta atta eaman 'ta geyo ikusi ez. 'Ta hola asko, han? Ez... ni Zaragoza bastante, beno, bastante jon naz, 'ta Zaragoza guzela zenbat herri beltx-beltx-beltxak hutsak. Denak gerrako dembun hartu 'ta karri 'ta geo... Oaiñ, tartin ateratzen dia batzuk, hemen, handik hemengo familiarrak jon 'ta ben terrenua izaki 'ta itxe batzuk bat 'o beste iñak eta hola ikusten dia. Miño gañekuk? Nada, abandonatuk itxiak. Herriyak hantxen, herri osuak.

9. Lanpostu batengatik fusilatua

- **Erref**: OIA-052/012
- **Iraupena**: 0:04:26. **Hasi**: 00:26:48. **Bukatu**: 00:31:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:
Nafar asko etorri ziren gerran; erreketeak. Asko bertan gelditu ziren. Inork gutxik ezagutzen duen fusilamendua kontatu digu Arroxak.

Transkripzioa
...'ta hola ikusten dia. Miño gañekuk? Nada, abandonatuk itxiak. Herriyak hantxen, herri osuak.

- 'Ta handikan torri zinak, reketi haik, euskaldunak 'ta izango zin ba?

- Gutxi, gutxi-gutxi. Gutxi, oso gutxi. Pamplonan ya euskaldunik ez dun, 'ta handikan harakua Zaragoza aldeko jendia torri zen. Gutxi.

- 'Ta handik aurrekuk denak bertuk?

- Bertuk, bai. Bai.

- 'Ta zeari... gizona 'ta hanguk zin, aldia hartakuk, Itturin...

- Itturinen. Hoik 'e torri zin, klaro, hemen nola suerdatu baiziyoten lana denantzako, nola ez baizuten gerra jon beharrik ne gizonak eta iñork 'e, eran extranjeros, iñor ez zin jon hoik gerra...

- A klaro, amerikanuk zilako.

- Bai. Iñor ez zin jon gerra hoik. Eta ordun ne familiya hori torri zen Makintxea bizitzea, bai. 'Ta hola, hoik bezela. Errenteiko plazan? Zea... Oaiñ ez, oaiñ ya. Hor puestuk jarri zittuztenak, hola torritakuk kantidadia, gurasuk geo karriyak zin. Berak honea torri, umik onea gerran karri 'ta berak bakarrik geldittu 'ta geo han gurasuk karri honea, holakua, naparra erruz zen hemen e!, erruz, erruz. Erruz... Beno, ni beti Errenteiko plazan, san niyon: "Hau 're naparra", 'ta beak saten zun: "Somos navarros" y "Si, ya se ve". 'Ta hola ixtoiak kontatzen hasi ezkio... ezin kontatu halakuk dia, gerrako... Esan zina, lenbizi torri zena honea, gerrako... jon zila Aranburura 'ta hango amonak ez zula deus jakin nahi 'ta, honea dirijitu zittuztela 'ta, bueno... eta san zin: "Bueno, afusilamentun...", hemen bizittu zen geo 'ta, gizona hura hilla hunan, "Haren atta non hil zuten iñork ez diu san,'ta zuk bakarrak. Ui, ezta itxekuk 'e ez zakiten hura non hilla zen", "Pues, Oiartzungo kamposantun hilla da. Porke hemen goiko gizona, beste bizitza du honek goian, eta hoi Lizarrea gelditzen baserrira jon gabe lotan, Lizarren arreba zun 'ta, eta geo zolua ittea eamaten zittuzten Oiartzungo kamposantura, 'ta gizona horrek ze san ziyon: eaman dute... kulpik gabe ekarri zuten, Errentiyan zon guarda hoi, 'ta beste batek guarda sartu nahi zulako horrei txibatazo bat gezurretakua iñ, gizona hiltzeko, zu. 'Ta san ziyon: "Aizu, ingo al diazu nei enkargu bat?", "Ui" gizon honek esan 'men

ziyon "Nik ittekua bada...", "Sanki yozu ne itxekuri nik ze paradero damaten" esaten zun, "Ne denbun ez ddit aztuko gizona haren serenidadia, hiltzeko zai jarriyak, zeak, soldaduk". 'Ta ez zekiten honea torri zinak "Beno, Oiartzungo iñork 'e ez diu... ibilli ga galdezka horrena 'ta iñork 'e...", "Beira, Oiartzungo kamposantun hilla da hura".

- 'Ta zer zen, Errentikua?

- Errentikua, baserri batekua. Bai, 'ta hola. 'Ta zean, oaiñ (arte ez 'men ttizten...) bost gorputzen hezurrak, zean hoik, zean, Lekunen. Hor sartu ziten, hor? Jainkuak daki zenbat hil zuten hor. Hortik eskapo inta... geo tiro 'at emanta eroi zen 'ta ez jo, 'ta in zun eskapo gizon batek, Pasaikua, geo be andria hemen ibiltzen zen, arrai saltzen. Eta hura altxatu 'ta eskapo in ziñen, ez zun jo, eta lenbiziko baserrira, Oiartzabalea jon, 'ta han ate joka... hango gizonak nei kontatu: 'ta atia jo 'ta "Zein da?" 'ta hola 'ta hola "Ireki nazu" 'ta "Nik atia ez zattut...", "Ereki nazu" 'ta ireki ziyola, eskual lotuak 'ta hankutsik. "San niyon: nik etzattut etxian hartuko, eskuak eskatuko zattut eta apargatak eman, 'ta zuk, nahi zun tokira jon" 'efektibamente, miño han hill berra izango zen...

10. Norberarentzat ez izaki eta entregatu egin behar, gainera

- **Erref**: OIA-052/015
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:33:47. **Bukatu**: 00:37:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerraren ondoren, baratzean egiten zenetik zati bat entregatu egin behar izaten zen. Batzuetan ez ziren iristen kopurura eta erosi egin behar izaten zuten gero entregatzeko. Gipuzkoako errotak itxi zirenean, Nafarroara joaten ziren ogi bila, estraperloan. Hika.

Transkripzioa
- 'Ta hoi denak ikusita ez da geo erraza izango ba aurrea ittia 'ta bizimodua seitzia?

- Bai, in berra, in berra. In berra, in berra... Jendia zor askokin gelyittu zen. Beitu: iña zuten zea illarra 'ta haitik entreatu in ber izaten zuten, igual patata, igual illarra, igual... 'Ta zengatik? Porke Francok nola ez baizun urriik Españian, lenotikan eamana baizun. Ekarri zun muniziyua extranjerotik eta geo ez zon dolarik eta deus ez zon hemen patzeko 'ta dena biali zun hola: illarra... gauzakin. Eta Haizian Inaxio, oain zu ez za akortuko, hura puertun lana itten 'ta eun batin potua, san 'men ziyon: "potu, potua tomate bat eaman in ber dit" 'ta potuk kargatzen 'ta itxea jonta Xatur, hoi Bordazpiyan bizittu zena...

- Izautu nun bai, Haixiana 're izautu nun.

- Bai. Harrei san 'men ziyon "potu tomatia karri 'ut, nahi bazu zean jartzeko" ereki du 'ta oliyua! Ha zenbat hola, 'ta hola asko, hola asko.

- 'Ta itxian jango ez bazen 'de, entregatu in ber!

- Entreatu in ber, bai, bai. 'Ta ez zunak; eosi.

- Ez zunak eosi?

- Eosi 'ta entreatu, in ber izaten zun. Bai. Hoi hola da: ez zunak eosi 'ta entreatu. Hamakin batek bai. Hoi izandu zen gerra ondoko mixeia: zunak 'e... berrogei patata... beno, askotan illarrik ez 'zu erdiyik 'e itten zelayin, 'ta berrogeita hamar kilo entreatu ber ttuzu 'ta hogeita bost ttuzu etxiin, 'ta beste hogeita bost eosi in ber. 'Ta holakua beno... 'ta geo razionamentua; oliyua, ordun hemezortzi pezta asko zen, 'ta harrapatzen bazenun... eta oliyua izateko antxo lata haundi batzuk eosi 'ta oliyua kendu harrei 'ta antxoa lata hua jakitako 'ta geo oliyu harrekin gañeko gauzak iñ. 'Ta bizimodua hoi izandu zen, geo ondotik.

- Gerra bea 're gorra, miño geo ondorena 're gorra... hainbeste urtian.

- Bai. Nik, gue Felipek oaiñ ttu, oaiñ jon'zka berrogeita hemeretzi urte eta hura jaio zenin oaindik 'e nik razionamentuko kartilla nun. Bai. Kartilla harrekin jon 'ta maten zizuten ume bakotxantzat hillateko mango zizuten medio... kilo erdi bat azukre... Hillate guziko! Hola dena, hola neurtua.

- Klaro, 'ta zuk garaia hartan hazi zenitun seme-alaba guziyak?

- Bai. Hamakiñ estraperlo in niñen nik! Hamaika estraperlo bai!

- Berko!

- Berko! Goizutan 'ta hiru ordu, lau ordu, ya hiru ordu 'ta lauko birian ni tripa haundiyakin 'ta berrogeita hamar ogi, kiloa ez zen alletzen miño, buruan etorri naz hamakiña bider. Uzpuuko gañea. Kontrabandua zen. 'Ta ikusten banittun Guardia Zibillak 'o gordeta eon pixkat 'ta...

11. Emakume langilea

- **Erref**: OIA-052/017
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:37:20. **Bukatu**: 00:41:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Errotak Nafarroan ez zeuden itxita, eta Gipuzkoan bai. Arroxak lan klase asko egin behar izan du 11 seme-alaba aurrera ateratzeko. Hika.

Transkripzioa
- Zea... eta... hoi nola izaten zen? Klaro hoi zen errotak itxiyak zilako?

- Bai. Errotak itxiyak zielako.

- Ze joten ziñazten? Iriña 'o?

- Beitu... iriña. Beitu... 'ta ogiya... Naparrun ez zin itxiyak 'ta Gipuzkoan itxiyak. 'Ta Naparruan kolak beti eoten ttunen errotatan. Eta ogiya 're razionamentua han ogiya ez zon kontrabandua, gu genun kontrabandua, harrapatu ezkio.

- Hoi da. 'Ta zuek ze itten zenuten zuentzat eta bestentzat 're karri?

- Bai, bai. Guk 'ta... gue... ne gizon difuntua hamaika ogi karriya dut estraperlo, jesus! Asko, asko.

- 'Ta harrapatu in zizuten, noizpatte harrapatu?

- Ez, beñ 'e. Ez ziun harrapatu.

- Ez e?

- Zea... Lengun obispua 're torri zin nei zea bat ittea... entrebixta bat ittea honea, obispua, aurten. Eta san zin: "Zenbat, etxeko andre, zenbat bizimodo klase eaman ttuzu zuk?" eta "Nik? Sei 'o zazpi bai!" 'ta hemen barriyun don apaizak hala san ziyon: "Honek kontatutako ixtoiekin nik sermoi bat atera nun e!". Zer dailtzate hoik? Jai al dute 'o? 'Ta hola.

- Bai, bai. Eske... gauza pilla 'rra in ttuzu zuk e?

12. 11 seme-alabarekin eta alargun

- **Erref**: OIA-052/018
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:41:20. **Bukatu**: 00:41:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Arroxa gazterik alargundu zen eta bakarrik gelditu zen 11 seme-alabarekin. Lau hilabete baino lehen atera behar izan zuten Okillegiko zentraletik eta Arraguara joan zen bizitzera. Arraguako bakailao fabrikan hasi zen lanean.

Transkripzioa
- 'Ta hola.

- Bai, bai. Eske... gauza pilla 'rra in ttuzu zuk e?

- Asko. Nik bizimodo asko, klase asko eaman ttut. Nik hemen bakallo fabrikan 'e zazpi urtian lana in nun e! Handik etorri honea 'ta ume asko 'ta jornalak bazittuzten, bi 'o hasiyak lanin miño ttikiyak, jornal ttikiyak, eta hamaika laun jateko eta... Bakallu fabrika itten nun nik goizian etxeko lanak, gauzak prepatu 'ta ordu bitan sartu, 'ta hamarretan atera. 'Ta bittarti hartan, ne nausiyak beti ordu erdi bat maten zin, berendatzeko ordu erdi bat, 'ta nei "geyo pasatzen bada 're etzu inportik" umik torri 'ta txapan gañin apaiya berotzen jarri 'ta denak iñ 'ta berriz jon. Zazpi urte 'ta erdi pasa nittun.

- 'Ta bakallo fabrika non zen?

- Hortxe bihan, oaiñ zea do; prontoiya.

- A, hor zen?

- Hor zen bakallo fabrika bai. Hor larogei 'ta geyo launek itten genun guk lana. Martxa geitza eondu zen hor bai. Ongi (zon), aldian zen 'ta...

- Bai. 'Ta noiz itxi 'ro in zuten hoi?

- Itxi zuten... bai, bastante denboa nausi bat... bi nausi zin 'ta sepaatu zen 'ta geo itxi in zuten. Geo, hainbeste denbun itxiya eondu da 'ta geo fubola 'o partidua hoi ereki zuten 'ta hoi in zuten.

- 'Ta zu han ziñan bittartin? Nola moldatzen zin hok?

- Eskolan zin, 'ta eskolatik torri 'ta hortxe. Ez zen ordun telebisiyuik eta deuse. Ahal zutena... 'o ben zeak itten, ben gauzak itten.

- Bai, 'ta zarrenak ya igual ttikiyak zaintzeko mouan ya?

- A bai, hok ya lana itten zuten hok e! Honea torri zinin, biyek. Esmalteiyan itten zuten, 'ta hau geo jon zen, ez zun fabrikan ongi hartzen 'ta neskame jon zen, zazpi urte pasa 'inen itxe batin, bai. Hola. Geo gue mutikozkorra hoik 'e... denak opiziyua baute hoik. Benez, halakuk etorri zilako. Gue Manolo da gaztina, mutilletan... hua denetan gaztina oaiñ, bi alaba hil 'zkinianen 'ta. Eta harrek, berak ikasi zun de moderadoria, burniyakin itten ttu oso zea... ona da, 'ta berak, berazkua. Sartu toki batin 'ta han ikasi.

- Hantxe ikasi, hartako baliyo.

- Bai, baliyo. Hola.

- 'Ta haikin ziñalik... bueno, jongo ga zea... Portuberritikan Okillira ezkondu ziñan.

- Bai. Handik in nitzan, handik ezkondu nitzan. Han pasa nittun hemezortzi urte, han nitzala gizona hil zin, akzidente batin hil zen 'ta hemezortzi urte. 'Ta ordun, gaur e 'nittitekenen bialiko miño libratu ber izandu nun lau hillate miño lehenuo itxia ne umikin, 'ta eskerrik asko ne kuñadu gizajua, beñe ez zin aztuko...

13. Alargun

- **Erref**: OIA-052/020
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:42:06. **Bukatu**: 00:43:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Koinatuak etxea aurkitu zion alargundu zenean. Baserri hartan ez zegoen ez ur indarrik ez argirik. Seme bat minez jarri zen. Koinatuak asko lagundu zion.

Transkripzioa
- Ze saten ai nitzan?

- Kuñauk... zea biali in zizutela...

- Bai, kuñauak bazun itxe zar bat, Lataborda oaiñ 'e han do. Hura zakan behiyakin 'ta hola, hutsa zon 'ta. Eta bera zentralin bizi zen.

- Makinetxin.

- Makinetxin. Eta harek esan zin... Lenbizi billatu genun etxia Xatur bizi zena hortan, miño ez dakit itxeko (zerbait zango zela) geo ukatu, in ziuten etxia. Zulukoerrotakua zen, hori, itxi hori. Zen, bizitza hori. Eta geo ordun kuñauk san zin: "Torri, arreglatuko ga, torri zeara baserriya horta 'ta...". Gue umik miñez jarri ttunen baserriya hartan. Klaro, geo han zentralin dena genun: argiya, ura itxea... dena zen zentralin, eta horrea torri 'ta hor ez urik eta ez argiyik eta deusez. Miñez jarri zin. Ne Felipek... eondu zen urte 'ta geyotan una lesión en corazón egin ziyon disgostukin eta penakin. Erki kosta zen hori, bai, gue Felipe bai. 'Ta hola. Geo behintzat hor ongi: potajia bazun ne koñaduk, illarra itten zun, baserriya baizun. Eta hua, gu haren amparun ongi eta hua 're gue amparun ongi. Hala saten zin ne koñaduk Portuberrikuk: "Zuek 'e ongi izango zazte, miño zuekin 'e erki bizi da Inuzentzio" 'ta "Bai, guk ahaleiñak itten ttugu bera ongi izatetik". 'Ta geo...

14. Bizimoduari aurre egiten

- **Erref**: OIA-052/021
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:43:40. **Bukatu**: 00:46:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Alargundu zenean, senarrak utzitako txondorretik atera zuen diruarekin terrenoa eta etxea hartu zuen Arraguan. Alargun-sari eskasa gelditu zitzaion, senarra hil zenean enpresa aldaketa tokatu zelako. Hika.

Transkripzioa
- ...Inuzentzio" 'ta "Bai, guk ahalegiñak itten ttugu bera ongi izatetik". 'Ta geo hau itxia itteko terrenua eosi nun lemizi, 'ta geo koñaduk in zin, miño nik jarrita dirua. Nik dirua... ne gizona hil zenin txon... gue gizona denatan zen saiatzen... zuk ez dakizu txondarra zer den.

- Bai, ikusi dut.

- Ikatza itteko, beno. Bai. 'Ta itten zin holakuk 'ta ikatza saldu 'ta beno, ahal 'zunak... 'ta hil zenin gellittu zin ez dakit zenbat... hoi eosi in ber izaten da. 'Ta torri zitzaian gizon bat: "Nik eosiko 'izut" 'ta "Ez. Neonek ingo ttut hoik. Gizon bat billatuko 'ut eta...". Neonek in nittiñen, txondarra haik eosi 'ta ikatza. 'Ta ordun hamar milla duro asko zen e! El año sesenta. Eta harrekin ni itxia itten hasi nitzan. Ni ez hasi, ne kuñadua, miño ne dirukin. 'Ta geo zor utzi nuna kobratzeko atzetik beti, 'ta beste koñado batek esan zin:

"Horrei muturra itxiko yogu 'ta nik mango 'izut dirua". Hoi denak ikusi ttut nik! Miño, ni hemen nion.

- 'Ta gizona, zentralan kargua zuna izango zen?

- Bai. Miño ze pentsa... ze pasatu zen? Ordun Iberduero... Vasco dena Iberdrolak hartu zittun. Miño gizona neria hil zenin Ibarduero pasik zin zentralak miño personala pasa gabia 'ta ni geldittu nitzan una... erretiru mixerable batekin cuatrocientas cinco 'ta hamaika ume. Ni geldittu nitzan, cuatrocientas cinco pesetas. Aquí estoy yo.

- Klaro, dena zuk ate ber?

- 'Ta hoi denak... san zin obispuk: "Ez dakazu eliza 'ta deus jon berrik zerua ederra 'zu", "Ez dakit, han 'e azkena izango naz ni, por tonta".

- Han 'de itxia in berko 'zu, ez zattuzte erregalo mango!

- Parra in zun, "Han 'e azkena izango naz ni por tonta".

- Jo miño, in zenun zuk zea erra e? Hainbeste seme-alabakin...

- Bai.

- 'Ta itxian jabe iñ!

- 'Ta itxian jabe, bai, 'ta gaur milloiak baliyo 'ttu honek. Hoik terreno hoik denak neriak dia; baatziak 'ta hoik denak, honenak dia, itxia honenak.

15. Jainkoaren grazia edo lanarekin irabazia

- **Erref**: OIA-052/022
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:46:17. **Bukatu**: 00:48:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Arroxak gogoan du oso txikia zenean gertatukoa: amak sosa eman zion haurzaintzen gelditu zelako. Ijitoa etorri eskean, eta amak emandako dirua eman zion. Amona batek esan zion gauza ederra egin zuela eta jainkoak leihotik gauza asko sartuko zizkiola. Hika.

Transkripzioa
- ...'ttu honek. Hoik terreno hoik denak neriak dia; baatziak eta hoik denak, honenak dia, itxia honenak.

- Bai, bai. 'Ta ordun 'de oaiñ miño merkeuo zen miño ordun 'de dirua zen.

- Diru asko!

- Len 'de erregalo ez zela.

- Bai, diru asko zen ordun. Nik san niyon... nik anekdotak aleiya... nik kontatutako anekdotakin atera zula semoia, apaizak esan zin. Nik, beti gauzak gouan ibiltzen dia, zazpi urte nittula 'o hola, gue amak 'e in ber izaten zun, taberna zun 'ta jendikin artajorran 'ta lana, eta Mieltxo, leno san dut; Tromoiyana, horren amona zen Xaturnina, eta hoik... Mañula horren ama, Mieltxon ama 'ta hoik neskatxa gaztiak 'ta itten zuten fabrikan lana, miñon ez dakit, urtian hiru hilate 'ro fabrikak biali itten zittun, 'ta ordun artajorra 'ta ibiltzen zin eta gue itxea asko joten zin 'ta... horren ama Xaturnina, sekulan... oaindik 'e begitan zakanet. Zazpi urte nittun, oaiñ larogeita kontuk satea nijua, beno, gehiyo gañea... Eta ama neria haik... zelaira jon ber haikin 'ta bi sos man 'ta: "Zuk kontu haurrai" 'ta haur kontzen ni geldittu nitzan 'ta bittarti hartan amona hoi ailletu zen 'ta ijito bat eskea, ordun gehiyo ibiltzen zen eskian, 'ta nik ez dakit ba, bi sos haik amak manak izaki 'ta haik hartu 'ta man niyon ijitu harrei 'ta amona horrek ze esan zin... Oaiñ, saten zin apaizak, "'Ta oain ze pentsatu?", 'ta "Ui...", san zin "Ai, gaixua! Ze gauza erra in 'zun e! Ba, zuk hoi in 'zu 'ta Jaungoikuk leihotik gauza asko sartuko zattu zuri" 'ta ni "Ui, ze sartuko 'te nau?" Harta. Miño geo haundittukin pentsatzen bazu... honek san zina: "Nik hara: Gizon bat ona eman, famili erra, ume onak, neone... hoi denak leihotik 'o nombaitik sartuak izango dia". 'Ta horrekin sermoia ate zula. Anecdotas.

- Jaungoikuk emango zizun, miño zu saiatuta 're bai, ez?

- Klaro, harek beste saiatu in ber da. Betela lan erra zakan! 'Ta holako kontuk asko dia, bizitzan. Batzui san niyon: "Nik?" Attona zar batzuk hor bizi... "Atsua hau beti hemen dailla. Be denbu guziyan ez du lanik iñ", "Hik ez duk oaiñik ixkin bat 'e iñ nik aiña", behin san niyon atton batei: "Izkiñ bat 'e ez duzu zuk iñ nik in ttuten lanak, ixkin bat 'e".

16. Argindarra

- **Erref**: OIA-052/023
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:48:50. **Bukatu**: 00:52:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Arroxaren senarra Okillegiko zentraleko arduraduna zen, baina Arroxak ere ikasi zuen zentrala maneiatzen. Zentralak jarri ziren arte auzoetan ez zegoen argirik; kandela eta kinkilarekin ibiltzen ziren. Hika.

Transkripzioa
- ..."Hik ez duk oaiñik ixkin bat 'e iñ nik aiña", behin san niyon atton batei: "Izkiñ bat 'e ez duzu zuk iñ nik in ttuten lanak, ixkin bat 'e".

- Klaro zuk: baserriya, geo zentralin 'e aitzen ziñan lanin 'o gizona bakarra aitzen zen?

- Bai, zentralin 'e eakutsi ziten, makinak manejatzen nittiñen nik denak. Bai, bai, bai, eakutsi ziten. Nik zentraleko martxa banekiyen, gizona nomattea eamaten bazuten ni gelditzen nitzan. Beno, gehiyo, beste bi

gizonek 'e itten zuten lana, miño turnun itten zuten lana. Nik kasi nun. A! Oiañ berriro torri da... san niyon... "Aizu, Okilliko berri jakin nahi luteke", bi tokitik baizen indarra 'ta oaiñ saldu in zen fabri... hura, Iberduerok saldu in zun beste norbaittei, 'ta beste aiekatik heldu zen indar harrek makina diferentia zun 'ta "jakin nahi dute" 'ta horrek san ziyon hoi Iberdrolan enpleatu 'ta "Bueno, ni Iberdrolan enpleato eondu naz miño nik deus ez dakit hemen andre bat bada, seuraski harrek jakingo 'u", 'ta honea torri zen 'ta nik san niyon: "Harrek lanin ai baldin bada sei ordu bakarrak ttik" depositu haundi bat zen "Makina lanin ai bada sei ordu" eta bost kilometroko kanalia zun treinta por treinta, ttiki-ttikiya, 'ta zotz bat aski ziñen itxitzeko, 'ta geo presa hutsa! 'Ta hura ne gizonak geo haundittu zun dena.

- Bai e?

- Jornalaz aparte.

- Be borondatez?

- Bai. Hura dena... haundiyugo, geo ez dakit cincuenta por cincuenta 'o ze in zuten. Gue honek, neska... oaiñ den, beno oaiñ, Goizutan bizi den Mari Carmenek hamaika ondar karraittu ziñen mando ttiki batekin. Hoi 're lan asko iña da, asko, denak gue umik lan asko in dute. Hoik e, hamahiru urtetako lanea jon dia denak gue itxian. Denak.

- Berko!

- Berko 'o, eskola miño nahiyo zutelako lanea jon, hara! Eskola...

- Bai e? Gañekun zuk eskola 'ta man...

- Bai, eskola badute. Be... nola izaten da? Eskola korrinti hori denak baute. 'Ta hola.

- 'Ta zea... Zentrala hoiken aurretikan argi korrintik eta ez zen izango, hoik izango zin lendabizikuk?

- Ez, ez, ez zen. Lemizi, ni neskatxa... beno, e'nitzan oainik, lemizi Portuberri 'ta hoita argiya jarri zutenin deposito ttiki bat jarrita, motor ttiki batin jarri zittuzten. Zenbat urte da ba? Nik ordun zenbat urte izango nittiñen? Beno, hamasei bat urte 'o, argiyak jarri zinin han, barriyu haitan. Gañekun ez zen... herriyatan 'ta hola bazin biño barriyutan, barriyo askotan ez zen argiyikan. Tz-tz-tz. Geo hasi zin jartzen barriyutan.

- 'Ta argiyik gabe nola moldatzen ziñazten?

- Ui, kandelakin 'ta kinkiya. Petroleokin izaten zen, kinki batzuk, kinkiyak izaten zin, muturrin izaten zun algadona... algadoiya bustiya eoten zen beti petroliokin 'ta xintxilik haik jarrita. 'Ta geo Arditturritikan torri... karburua izaten zen 'ta karburua eosteko modua zunak 'o batzutan lapurtu Konpañiyai 'ta kandilla haik...

17. Portuberrin taberna eta bilera

- **Erref**: OIA-052/024

- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:52:13. **Bukatu**: 00:55:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Portuberrin taberna zen. Jaietan bilera izaten zen Portuberrin; anaiak jotzen zuen soinua. Garai batean, Zaldinen izaten zen bilera. Arroxak ez zuen ezagutu baina entzuna zuen. Gaueko 10etan itxi behar zen taberna; bestela, Aritxulegin zeuden mikeleteak etortzen zitzaizkien. Hika.

Transkripzioa
- ...'ta karburua eosteko modua zunak 'o batzutan lapurtu Konpañiyaiy 'ta kandilla haik oso argi ona itten zuten, oso ona.

- 'Ta Portuberri taberna zuen gurasuk 'ta jarri zuten 'o...?

- Ez, aurrekotik. Beti izandu 'men zen. Ne attan attak 'ta amak eta... bai.

- 'Ta Tornolako taberna bakarra izango zen?

- Bai, huaxe. Ergoinen 'e bakarra zen Bialde. Bakarra izaten zen, 'ta geo zen Tolare.

- Bialde lenoztik zen e?

- Bai, lenotik zen, bai.

- 'Ta han ze juntatzen zen? Tornolako jendia 'ta...

- Miño oan bezelako parranda itteik ez zionen, ez zon diruik eta. Diruik ez zon... Norbaittek lana itten bazun... Mutillak sasoiyik hobenekuk iñone lanik ez 'ta itxian zu. Ordun, lana zuna, oso abetsa zen e! Oso aberatsa lana zuna. 'Ta lan bat Arditturrin hasi zin, lanin jarri eta soldauxka bertan manejatzen zuten, soldauxka iñ.

- Hoi da, soldauxka jon berrin, han.

- Bai. 'Ta geo; bilera 're bai al zen Portuberrin?

- Bai. Ne anaiak jotzen zun... ne anaia gaizki... gerran hil zena horrek, gaizki zola ikasi ñun soinu jotzen 'ta oso erki zekiyen. 'Ta beno, billera hoi izautu dugu. 'Ta lenotikan jotzen zun, itten zen bilera Zaldingo zabalian. Zuk ez dakizu non den Zaldin; Epeletikan gora. Han zabal... beitu, hara 're bilera jon itten ttunen jendia. Han otsutarra haitakun attak jotzen zun soiñua.

- Miño hoi zu etza gotuko.

- Ez. Joten zela 'ta soiñua bazela 'ta hoik bai, miño gañekun ez, ni e'naz sekula hoita... Ni Altzibarrea 're, San Pedrutan, ne denbo guziyan behiñ bakarrik torri yunen, nola itxian beti izaten baizen soiñua... Altzibarrea.

- 'Ta zein... Portuberrira bilerara Tornolakua bakarra 'ro kanpotik 'e...?

- Jotin zin e. Altzibar aiekatik eta jende batzuk, beno, jakiñak: pudientes un poco... lana zuten mutil batzuk eta hola, gaiñekun...

- 'Ta zuek hairi beira?

- Hairi beira, 'ta gañea ordun erretira zen; ez bazenun hamarretan itxitzen taberna mikeletik etortzen zin 'ta multa...

- Jote al zin haraiño?

- Autxilin eoten zin 'ta.

- A klaro.

- Autxilin beti pareja bat eoten zen.

- Gerra aurretik 'e bai?

- Bai! Han bizitzen zin. Han bizitzen zin. 'Ta geo gerra torri zenin mikeletik kendu zittuzten, kendu zittuzten.

- 'Ta zuek ze aitzen ziñazten, tabernin launtzen 'ta 'o dantzan 'o ze aitzen ziñazten?

- Denetik, denetik. Jaten ematen genun eta denetik itten genun. Gue amak hamakiña 'at kozina in ziñen. Jana 'ta geo Arditturrira torri izandu zin... Goizutatik 'e han kiebra jo zula 'o... Eta Olatxen bizi ttunen hogei 'ta geyo laun, beak... 'Ta hoik jaitan, jaiero gue itxiin, berindua prepatzen ziyon gue amak. 'Ta hola...

18. "Trabajadoreak"

- **Erref**: OIA-052/025
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:55:50. **Bukatu**: 00:56:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Gerra garaian 'trabajadoreak' etortzen ziren Portu berrira. Lapurreta asko izaten zen. Trabajadoreen artean jatorrenak andaluziarrak ziren. Hika.

Transkripzioa
- ...hogei 'ta geyo laun, beak... 'Ta hoik jaitan, jaiero gue itxiin, berindua prepatzen ziyon gue amak. Eta hola... Gue amak jana asko jartzen zun. 'Ta hola.

- 'Ta zue gizona izandu zena 're torko zen? Ez, hua apopillua zen.

- Hua apopilua zen. Hua geo, gerra ya bukatua zen hua torri zeneko, bai.

- Miño ordun, dantza ze izandu zen, gerra arte?

- Gerran, ya gerran. Ordun ez zon... porke trabajadoria 'ta ze naspilla izaten zela uste 'zu? Beira jarriyak denak lapurtzeko 'ta e'zuten 'ta... Gerran taberna ezin zen izan biño... Taberna ez gen... ez zen itxi sekulan. 'O baten batek nahi baldin bazun botil bat ardo eamateko 'o... Batzuk mutillak izaten zin itxetikan dirua bialtzen ziyotena eta ongi bizi zinak trabajadori haitan 'e. Denetik bazin. Lapurrik haundinak ttunen de los de Bilbao, Bilbaotarrak 'ta personik jatorrenak andaluzak zin, trabajadori haitan, andaluces.

- Trabajadorik zer zin prisioneruk hartutakuk ez? Ze geo aparte zin soldauk?

- Ez, ez, ez. Haik trabajadorik haik kartzelan in ber zuten tokiyan lanin itten zuten, be pena.

- Bai, hoi da.

19. Gerrak dantzatzeko gogoa kendu

- **Erref**: OIA-052/027
- **Iraupena**: 0:00:36. **Hasi**: 00:57:10. **Bukatu**: 00:57:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Gerra etorri zenean, ez zen dantzarik izaten. Errespetu handia zegoen; izan ere, gerrara eraman zuten gauza zen guztia.

Transkripzioa
- Eta zea in zenin... gerra bukatu zenin, ui, gerra torri zenin bailia 're ya ez zen?

- Ez, ez, ez. Errespetua zon ordun. Iñorre ez zen hoitan, ya gerrea eaman ziten gauza zen guziya 'ta. Hemezortzi urte kumplittu gabe gerrea eaman zuten dena.

- Akabo bailik eta gaiñekuk.

- Bai, denak.

20. Maistrak

- **Erref**: OIA-053/001
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Klaketa. Arroxaren familian maistra asko egon dira: izeba Maria eta bere ahizpak, Martxeli eta Xixili. Tornolako haurrei irakasten zieten Santander baserrian.

21. Etorkinak

- **Erref**: OIA-053/002
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:02:40. **Bukatu**: 00:05:00

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Erdaraz gerran ikasi zuten, etorkin asko etorri baitzen, eta euskara galarazita zegoen. Etorkin asko hartzen ziren etxeetan 'derecho cocina' deitzen zen eran. Hika.

22. Apopiloak

- **Erref**: OIA-053/003
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:08:30

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Berak 11 seme-alaba zituen, eta, hala ere, familia bat hartu zuen apopilo. Etorkinak ziren eta gaua kanpoan pasatu behar zuten, bestela. Bere gelan sartu zituen eta berak lurrean egin zuen lo. Baina asko estimatu zion emakumeak; geroztik tratua izan dute beti. Hika.

23. Ez daukanak ongi ohi daki edukitzea zein den ona

- **Erref**: OIA-053/005
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:13:00. **Bukatu**: 00:14:40

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Arroxa beti saiatu izan da jendearekin ongi eramaten eta behar duenari laguntza ematen. Hika.

24. Etxearen jabe

- **Erref**: OIA-053/007
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:15:00. **Bukatu**: 00:16:20

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Etorkinek hasieran oso gaizki pasatu zuten; ezer gabe etorri ziren. Batzuetan etxeetan hartzen zituzten, baina beste asko txaboletan jarri ziren bizitzen. Gero hasi ziren beren etxeen jabe egiten, eta euskaldunak ere orduantxe hasi ziren etxea erosten. Ordura arte gehienak maizterrak ziren, etxe aldeko semealaba batzuk kenduta.

25. Bestek egindako ezkontzak

- **Erref**: OIA-053/009
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:17:00. **Bukatu**: 00:19:10

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Lehen, bestek egindako ezkontzak asko izaten ziren. Ezkondu eta harreman okerra bazen ere emakumeak jasan egin behar zuen, senarraren mende bizi baitzen. Emakumea kanpoan lanean hasi zenean aldatu zen egoera. Hika.

26. Pretendiente lesakarra I

- **Erref**: OIA-053/010
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:19:10. **Bukatu**: 00:22:30

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Arroxak pretendiente bat eduki zuen, gero bere senarra izango zena ezagutu baino lehen. Lesakarra zen eta San Antonen ezagutu zuten elkar. Eskutitz asko idatzi zizkion Arroxari, baina hau gaztea izaki eta ez zegoen hartarako. Urteetara, mutil haren semea ezagutu du. Hika.

27. Pretendiente lesakarra II

- **Erref**: OIA-053/011
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:22:30. **Bukatu**: 00:26:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Arroxak pretendiente lesakarra eduki zuen. Eskutitzak idazten zizkion elkarrekin egoteko, baina Arroxak ez zion kasurik egiten. Behin beste neska batekin ikusi zuen eta orduan pena hartu zuen. Hika.

28. Enplegatutakoarekin ezkondu

- **Erref**: OIA-053/012

- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:26:00. **Bukatu**: 00:27:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Berak 18 urte zituen eta orduan ez zuen mutilik buruan. Orduan, enplegatutako batekin ezkontzea gauza handia zen eta bere gizona hala zen.

29. Amatasuna

- **Erref**: OIA-053/014
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:29:35. **Bukatu**: 00:32:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
15 urtean eduki zituen 11 seme-alaba. Denak batera jaio eta denak batera hazi. Okillegiko amonarekin eduki zituen.

30. Okillegiko partera

- **Erref**: OIA-053/016
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:33:45. **Bukatu**: 00:37:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Okillegiko amona Maria aritzen zen han inguruan partera lanetan. Arroxak harekin eduki zituen bere seme-alabak. Alaba batekin odol asko galdu zuen, baina bizkortu zen, hala ere. Oilo-salda hartzen zuten bizkortzeko. 40 egun etxetik atera gabe egon behar zen, eta teila buruan hartuta atera behar zen. Artikutzan egiten zuen eliza-sartzea. Hika.

31. Etxean jaio

- **Erref**: OIA-053/017
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:37:00. **Bukatu**: 00:39:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Erditze guztiak ezberdinak dira. Orduan ez zen ospitaleetan jaiotzen. Bazegoen "Clinica Pilar"-edo, baina gehienak etxean jaiotzen ziren, praktikantea etxera ekarrita. Urruti bizi zirenak parterekin moldatzen ziren. Lehen haur asko hiltzen zen.

32. Osasuna eta zahartzea

- **Erref**: OIA-053/018
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:39:40. **Bukatu**: 00:42:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
Medikuntza aldatu egin da. Pulmonia bakarrik zekiten. Gainerakoan, ez zen begiratzen ez tentsiorik, ez azukrerik... Orain lehen baino zahar gehiago daude. Lehen etxean zaintzen zen zaharra.

33. Arragua aldatua I

- **Erref**: OIA-053/020
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:43:40. **Bukatu**: 00:46:10

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:
Arroxa orain dela 50 urte-edo etorri zen Arraguara: etxe gutxiago, taberna gehiago, autopistarik ez... aldaketa asko. Hika.

34. Arragua aldatua II

- **Erref**: OIA-053/021
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:46:10. **Bukatu**: 00:48:10

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:
Taberna bat zegoen eta hura itxi zuten. Behekoak ere itxi dituzte. Erosketak egiteko kalera igotzen ziren. Hika.

35. Arragua aldatua III

- **Erref**: OIA-053/022
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:48:10. **Bukatu**: 00:50:20

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:
Arragua goia eta behea. Toki politagoa zen lehen, baina bera gazteago izanda ere ez litzateke beste inora joango. Hika.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-13

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com